## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 JASANGARRITASUNA, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEA

**Programa:** 452600
452401 URAREN OSOKO ZIKLOA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 40 SOSTENIBILIDAD, AGRICULTURA Y MEDIO NATURAL

**Programa:** 452600
452401 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetan edateko uraren hornidura eta hondakin uren araztea bermatzea da programa honen helburua.

Bi xede horiei begira, programa honek aurreikusten du aldez aurreko azterlanak, proiektuak eta obrak egitea, hornidura eta saneamendu gaietan eskumena duten toki erakundeen eskaerei erantzuteko.

Hala, zehazki, aurreko urteetan Hornidura eta Saneamendurako 2016-2026 Gida Plana prestatu zen, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 3ko 228/2018 Erabakiaren bidez onetsia, eta horren testuinguruan idazten dira gaur egun proiektuak eta egiten dira azaleko edo lur azpiko urak aprobetxatzera bideratutako obrak (biltegi erregulatzaileak, zundaketak, ponpatze estazioak, banaketa sareak, etab.), baita hondakin uren tratamendutegi eta saneamendu kolektoreak ere.

Gida plan hori egitearen emaitza modura ondorioztatu zen uraren ziklo osoaren kudeaketa eredu berria bultzatu behar dela, ezarritako esparru legala betetzen lagunduko duena; hala, beste aurrerapauso bat emango da lurralde honetako uraren ziklo osoaren bermea eta eraginkortasuna hobetu eta berrantolatzeko.

2017an, Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzeko esparru akordioa berritu zen, Araban obra hidraulikoak egiteko. Esparru horretan, inbertsio batzuk ere sartzen dira.

Programa horren barnean diru sarrerak sortzen dira, orobat, hondakin urak tratatzeko zenbait araztegi elkarrekin ustiatu eta zaintzeko toki erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenen ondorioz, bai eta Gaubeako HUAn putzu septikoen lohien tratamenduagatik ere.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN

### I. MEMORIA

El objeto de este programa es garantizar el abastecimiento de agua potable y la depuración de las aguas residuales de los núcleos urbanos del Territorio Histórico de Alava.

Para la consecución de este doble objetivo, el programa prevé realizar estudios previos, proyectos y obras que atiendan las demandas de los entes locales competentes en materia de abastecimiento y saneamiento.

Así, en concreto, se elaboró en años anteriores el Plan Director de Abastecimiento y Saneamiento 2016-2026, aprobado por Consejo de Diputados 228/2018, de 3 de mayo, y en el marco del mismo se redactan actualmente proyectos y se ejecutan obras encaminadas al aprovechamiento de las aguas superficiales o subterráneas (depósitos reguladores, sondeos, estaciones de bombeo, redes de distribución…), así como estaciones de tratamiento de aguas residuales y colectores de saneamiento.

Resultado de la elaboración de ese mismo Plan Director, se concluyó con la necesidad de impulsar un nuevo modelo de gestión del ciclo integral del agua que ayude a dar cumplimiento al marco legal establecido, dando así un paso más hacia la reorganización y mejora de la eficiencia y garantía del Ciclo Integral del Agua en este territorio.

En el año 2017, se renovó el Acuerdo Marco de colaboración con la Agencia Vasca del Agua para la ejecución de obras hidráulicas en Alava, marco en el que también se encuadran algunas inversiones.

Dentro de este programa se generan también ingresos procedentes de los convenios firmados con varias entidades locales para la explotación y mantenimiento conjunto de varias estaciones depuradoras de tratamiento de aguas residuales, así como por el tratamiento de lodos de fosas sépticas en la EDAR de Valdegovía.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 JASANGARRITASUNA, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEA

**Programa:** 452600
452401 URAREN OSOKO ZIKLOA

### GAUZATZE MAILA

Programatutako helburuak betetzeko, azken aurrekontua 4.154.168 €-koa izan da, eta ondoren zehazten diren jardueretan erabili da, bete beharreko helburuen arabera:

- **Lurralde Historikoa beharrezkoak diren hornidura, saneamendu eta arazte azpiegiturez hornitzea**

Arabako biztanle guztien hornidura bermatzeko eta Arabako herriguneetako hondakin uren tratamendu egokia ziurtatzeko, azterlanak eta proiektuak idatzi ziren.

Ozetako, Hermuko eta Larreko HUA berriaren proiektua amaitu zen, bai eta Araiako HUArekin lotzeko kolektoreen proiektua ere, Egilatz, Zalduondo eta Albeizerako. Lalastrako HUA berriaren proiektua eta Maroño-Artziniega hornidura sistemak (Lagranerako eta Delikarako biltegi berriak) lotzeko proiektuak ere hasi ziren, eta Sobron behea hornitzeko alternatiben azterketa egin zen.

Arabako Lurralde Historikoko herriguneen hornidura hobetzeko eta bermatzeko helburu beraz, 2023an Murgako industrialdeko egungo biltegia aprobetxatzeko hodi berrien obrak amaitu ziren, Laudioko erregulazioa hobetzeko. Horrek 195.601,70 €-ko inbertsioa ekarri zuen.

Era berean, Leziñanako hornidura hobetzeko obrak amaitu ziren, iturburutik hoditeria berrituz, eta andel berria eta EUA eraikiz. 2022an hasitako obra horiek 542.506 euroko inbertsioa eragin zuten 2023an.

39.067 €-ko inbertsioarekin, sistema fotovoltaikoa eta beste jarduketa batzuk ezarri ziren Larrazubiko andel berria zerbitzuan jartzeko.

Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoarekin Artziniegako andel berria eraikitzeko sinatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan, eraikuntza obrak amaitu ziren, 146.930 euroko gastua eginez 2023an.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 40 SOSTENIBILIDAD, AGRICULTURA Y MEDIO NATURAL

**Programa:** 452600
452401 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

### OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el cumplimiento de los objetivos programados, se ha dispuesto de un presupuesto final de 4.154.168 €, el cual ha sido empleado en las actuaciones que se detallan a continuación según los distintos objetivos a cumplir:

- **Dotar al Territorio Histórico de las necesarias infraestructuras de abastecimiento, saneamiento y depuración**

Para garantizar el abastecimiento a toda la población alavesa y asegurar el adecuado tratamiento de las aguas residuales de los núcleos alaveses, se redactaron estudios y proyectos.

Éstos incluyeron finalizar el proyecto de la nueva EDAR de Ozaeta, Hermua y Larrea, así como el proyecto de los colectores de conexión con la EDAR de Araia para Egilatz, Zalduondo y Albéniz. Se inició también el proyecto de la nueva EDAR de Lalastra, y los proyectos de conexión de los sistemas de abastecimiento Maroño-Artziniega, nuevos depósitos para Lagrán y Delika, y se elaboró el estudio de alternativas para el abastecimiento de Sobrón Bajo.

Con el mismo objetivo de mejorar y garantizar el abastecimiento de los núcleos de población del Territorio Histórico de Alava, se finalizaron este año 2023 las obras de nuevas conducciones para aprovechar el actual depósito del polígono industrial de Murga para mejorar la regulación de Llodio. Esto supuso una inversión de 195.601,70 €.

Igualmente, fueron finalizadas las obras de mejora del abastecimiento de Leciñana del Camino con la renovación de la conducción desde el manantial y la construcción de un nuevo depósito y ETAP. Estas obras que fueron iniciadas en 2022 implicaron una inversión de 542.506 € en 2023.

Con una inversión de 39.067 € se instaló el sistema fotovoltaico y otras actuaciones para la puesta en servicio del nuevo depósito de Puentelarrá.

En el marco del convenio de colaboración firmado con el Consorcio de Aguas del Kantauriko Urkidetza para la construcción del nuevo depósito de Artziniega, se dieron por terminadas las obras de

Bestalde, Guardiako andela eraisteko eta berria eraikitzeko, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari dirulaguntza bat ematen jarraitu zen, partzuergo horrek egin beharreko obrak finantzatzeko. Dirulaguntza horrek 469.510 euroko gastua eragin zuen 2023an.

Hornidura hodia berritzeko obrak hasi ziren, Sobrongo zundaketatik gaur egun erabiltzen ez den eta Sobrongo La Playa auzoan dagoen andeleraino. Inbertsioa 99.943,28 €-koa izan zen 2023an.

Zirauntzaren iturburutik hornidura hodia berritzeko obrak ere hasi ziren, 2024an amaituko zirela aurreikusita. Horretarako, 399.409 €-ko inbertsioa egin zen 2023an, eta Gorbeiako harguneetatik hodia berritzeko obrak adjudikatu ziren, eta haien gastua 2024an eta 2025ean gauzatuko da.

2023an, ez zen eraiki hondakin uren tratamendurako azpiegiturarik.

Eraikuntza obretarako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua betetze aldera, aholkularitza teknikoko lanak egin ziren obretan segurtasuna eta osasuna koordinatzearren.

Laguntza teknikoko lanak ere kontratatu dira, topografiari eta obra hondakinen kudeaketa kontrolatzeari lotutakoak, eta azpiegitura hidraulikoetarako lursailak eskuratzeko transferentziak eta ordainketak egin ziren.

- **Hornidura eta saneamendu arloan eskumena duten erakundeekin lankidetzan aritzea uraren zikloaren kudeaketan**

Hornidurarik ezaren arrisku egoerak arintzeko Alerta Gorriko Urteko Planaren barruan, zisterna kamioien bidez urez hornitzeko 10 toki erakundek egindako eskaerei erantzun zitzaien, eta Morillasko zundaketa konpondu zen. Guztira, 69.474 € bideratu ziren larrialdi gastuen kontura.

construcción con un gasto de 146.930 € en 2023.

Por otra parte, para la demolición y construcción del nuevo depósito de Laguardia, se continuó con la subvención al Consorcio de Aguas de la Rioja Alavesa para la financiación de las obras a ejecutar por ese Consorcio, lo que supuso en 2023 un gasto de 469.510 €.

Se iniciaron las obras de renovación de la conducción de abastecimiento desde el sondeo de Sobrón hasta el actual depósito en desuso en el barrio de la Playa en Sobrón, con una inversión de 99.943,28 € en 2023.

Fueron también iniciadas, con previsión de finalizarse en 2024, las obras de renovación de conducción del abastecimiento desde el nacedero del Zirauntza con una inversión de 399.409 € en 2023, y se adjudicaron las obras de renovación la conducción desde las captaciones del Gorbea, cuyo gasto será efectuado en los años 2024 y 2025.

Este año 2023 no se llevó a cabo la construcción de ninguna infraestructura de tratamiento de aguas residuales.

Al objeto de dar cumplimiento al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, se llevó a cabo trabajos de asistencia técnica para la coordinación de seguridad y salud de las obras ejecutadas.

Se contrataron también trabajos de Asistencia Técnica topográfica y de control de gestión de residuos de obras, y se llevaron a cabo transferencias y abonos para la adquisición de terrenos para infraestructuras hidráulicas.

- **Colaborar y trabajar con los entes competentes en materia de abastecimiento y saneamiento en su gestión del ciclo del agua**

Dentro del Plan Anual de Alerta Roja para paliar las situaciones de riesgo de desabastecimiento, se atendieron las solicitudes de 10 entidades locales para el suministro de agua mediante camiones cisterna, y se reparó el sondeo de Morillas, destinándose en total con cargo a Gastos de Emergencia 69.474 €.

Agurain, Dulantzi, Santikurutze Kanpezu, Izarra, Done Bikendi Arana, Maeztu, Bernedo, Ribabellosa, Gaubea, Zuhatzako uhartea, Kontrasta eta Goiaingo industrialdeko araztegien baterako mantentze eta ustiapenaren esparruan, hitzarmen berriak sinatu ziren erakunde arduradunekin, bai eta ustiapen kontratu berri bat adjudikatu ere; berritasun gisa, Kontrastako araztegia sartu zen. 576.244 euroko gastua egin zen.

Araztegiak gainbegiratzeari lotutako hobekuntza gisa, araztegiak kontrolatzeko zentro bat instalatzeko proiektua eta Zuhatzako uharteko araztegiko lohiak kudeatzeko azterlana idatzi ziren.

2023an, ur emaria neurtzeko estazioak eta monitorizatutako piezometroak mantentzen jarraitu zen, eta, guztira, 88.131 €-ko gastua egin zen.

Era berean, Arabako SIA eta Web gunea – ur emaria neurtzeko estazioak tresna informatikoekin lotutako lanak egin dira,  eta erakundearen webean lurpeko ur baliabideen egoerari buruzko informazio plataforma integratu da.

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren jardun hori osatuz, Zerbitzuko teknikariek laguntza teknikoa eman diete toki erakunde eta partzuergoei ur horniduraren eta saneamenduaren arloan dauzkaten eskumenak erabiltzen laguntzeko asmoz, besteak beste, emakidak legeztatzeko, jarioak hautemateko eta bestelako laguntza teknikoak emateko, gehien-gehienetan. 2023an, 20 laguntza eskaerari erantzun zaie.

Sei hitzarmen berri sinatu ziren 2023an, araztegien ustiapenaren esparruan.

- **Uraren zikloaren lurralde kudeaketa orekatua eta eraginkorra lortzea**

Tokiko erakundeei emandako laguntzaren barruan, berariaz lan egin da URBIDE Arabako Ur Partzuergoa finkatzeko, zeinetara 108 erakunde



En el marco del mantenimiento y explotación conjunto de las depuradoras de los núcleos de Salvatierra/Agurain, Alegria-Dulantzi, Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu, Izarra, San Vicente de Arana/Done Bikendi Arana, Maestu/Maeztu, Bernedo, Ribabellosa, Valdegovía, Isla de Zuaza, Kontrasta y polígono industrial de Gojain, se llevó a cabo la firma de nuevos convenios con los entes responsables, así como la adjudicación de un nuevo contrato de explotación, incorporándose al mismo, como novedad, la depuradora de Kontrasta. El gasto efectuado fue de 576.244 €.

Como mejoras asociadas a la supervisión de depuradoras, se redactó el proyecto para la instalación de un centro de control de las depuradoras y el estudio para la gestión de lodos de la depuradora de la Isla de Zuaza.

Este año 2023 se continuó con el mantenimiento de las estaciones de aforos y piezómetros monitorizados, lo que supuso un gasto total de 88.131 €.

También se han llevado a cabo trabajos asociados a las herramientas informáticas SIA Alava y Web-estaciones de aforo, integrándose en la web corporativa la plataforma informativa sobre el estado de los recursos hídricos subterráneos.

La actuación del Servicio de Calidad Ambiental se ha completado con la asistencia técnica proporcionada por parte de los técnicos del Servicio a los entes locales y consorcios, al objeto de ayudarles en el desempeño de sus competencias en materia de abastecimiento y saneamiento, la cual se traduce habitualmente entre otras, en la colaboración en la legalización de concesiones, la  búsqueda de fugas y la prestación de otros apoyos técnicos. Este año 2023 se han atendido 20 solicitudes de asistencia.

Los nuevos convenios firmados en 2023 en el marco de la explotación de depuradoras fueron seis.

- **Lograr una gestión territorial del ciclo del agua equilibrada y eficiente**

Dentro del apoyo a los entes locales, se ha trabajado específicamente por el impulso a la consolidación del Consorcio de Aguas de Alava URBIDE, quien

atxiki baitziren 2023an.

Tokiko erakunde eskudunek azpiegiturak erabiltzeko lagatzeari dagokionez, haiek kudeatzeko, 2023an ez zen ezer laga.

- **Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzea**

  Lau kontratazio agiritan txertatu ziren helburu hori garatzeko klausulak.

- **Programa honen barruan garatutako jarduketen iraunkortasuna sustatzea**

  Hiru kontratazio agiritan txertatu ziren helburu hori garatzeko klausulak.

DIRU SARRERAK

Gaubeako HUAn putzu septikoetako lohiak tratatzearen ondorioz, 11.928,65 euroko diru sarrerak jaso dira.

Arabako kudeaketa entitateekin kontratu orokor baten barruan eta aldundiak gainbegiratuta haien araztegiak kudeatu eta ustiatzeko sinatutako hitzarmenen esparruan 619.494,98 euroko diru sarrerak jaso dira.

Uraren Euskal Agentziarekin eta URBIDE Arabako Ur Partzuergoarekin sinatutako hitzarmenetan oinarrituta, 99.943,28 € eta 407.004,97 €-ko diru sarrerak aitortu dira, hurrenez hurren. Lehenengoa Sobronen hornidura bideratzeko obrak egitearekin lotuta dago, eta bigarrena, berriz, Artziniegako ur andelarekin.

Dulantziko andelean kokatutako telefonia antenarako administrazio emakidaren kanona ordaintzeko 3.775 €-ko diru sarrerak aitortu dira.

Azkenik, hornidurarik gabe —alerta gorrian— dauden lurralde historiko honetako toki erakundeei laguntzeko jardunak finantzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 25/2017 Foru Dekretua aplikatzearen ondorioz 1.359,67 euroko diru sarrerak aitortu dira.



en 2023 contó con 108 entes adheridos.

En relación a la cesión en uso de infraestructuras para su gestión por los entes locales competentes, este año 2023 no se llevó a cabo ninguna cesión.

- **Impulsar la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres**

  Los pliegos de contratación en los que se incluyeron cláusulas orientadas a desarrollar este objetivo fueron cuatro.

- **Impulsar la sostenibilidad de las actuaciones desarrolladas dentro de este programa**

  Los pliegos de contratación en los que se incluyeron cláusulas orientadas a desarrollar este objetivo fueron tres.

INGRESOS

Derivado del tratamiento de los lodos de fosas sépticas en la EDAR de Valdegovía se han obtenido unos ingresos de 11.928,65 €.

En el marco de los convenios firmados con entidades gestoras alavesas para la gestión y explotación de sus depuradoras dentro de un contrato global con supervisión foral, se han recibido ingresos por importe de 619.494,98 €.

En base a los convenios firmados con la Agencia Vasca del Agua y el Consorcio de Aguas de Alava URBIDE, se han reconocido ingresos por importe de 99.943,28 € y 407.004,97 € respectivamente, relacionados el primero con la ejecución de las obras de conducción de abastecimiento en Sobrón, y el depósito de agua de Artziniega en el caso del segundo.

Como abono del canon de concesión administrativa para la antena de telefonía ubicada en el depósito de Alegria-Dulantzi se han reconocido ingresos por importe de 3.775 €.

Finalmente, por aplicación del Decreto foral 25/2017, del consejo de gobierno foral del 11 de abril, que aprueba las bases reguladoras para la concesión de subvenciones dirigidas a la financiación de actuaciones de auxilio a los entes locales de este Territorio Histórico en situación de desabastecimiento, Alerta Roja, se han reconocido ingresos por 1.359,67 €.